


Euskal AEko ospitaleratzeen % 84 ospitale publikoetan artatu ziren, 2019an Espainian baino ia ehuneko 11 puntu gehiago

Zirkulazio-gaixotasunak izan ziren ospitaleratzeen zio nagusia Euskal AEn

Eustaten datuen arabera, 2019an 247.502 ospitalizazio erregistratu zituzten Euskal AEko ospitaleek, aurreko urtean baino % 0,4 gutxiago, hau da, Estatu osoko % 5,1. Ospitalearen titulartasunaren arabera, nabarmentzekoa da Euskal AEko ospitale publikoetako ospitaleratzeen proportzioa % 83,5 dela, Estatuan baino ia ehuneko hamaika puntu gehiago, azken horren batez besteko tasa % 73 baita.

Alderaketa eginez gero, erikortasun-tasa 11.282 ospitalizaziokoa izan zen 100.000 biztanleko (-% 0,9 2018. urtearekin alderatuta). Horrek esan nahi du Euskal AE Estatuko batezbestekoaren gainetik dagoela (10.347), eta laugarren lekuan autonomia-erkidegoka.


100.000 biztanleko ospitaleratze-tasa, erkidego eta hiri autonomoen arabera. 2019



Iturria: Eustat. Ospitaleetako erikortasun-estatistika. INE. Ospitaleetako erikortasun-estatistika

Ospitaleratutako gizonen proportzioa (% 50,6) emakumeenaren antzekoa izan zen (% 49,4); Estatuan, berriz, handiagoa da emakumeen artean (% 51,9). Halaz ere, haurdunaldi, erditze eta erdiberriaroko gertakariak kontuan hartzen ez badira, emakumeen presentzia % 45,7ra jaitsiko litzateke Euskal AEn (% 47,4 Espainian). Adinaz denaz bezainbatean, ospitaleratuta egon ziren pertsonen % 51k 65 urte edo gehiago zituzten, Estatuaren aldean 5 puntu gainetik (% 46).

Ospitaleratutako pertsonen batez besteko adina 61 urtekoa izan zen Euskal AEn (57 urte Espainian) eta, sexuaren arabera, 61 urtekoa gizonetan eta 60 urtekoa emakumeetan (64 urte, haurdunaldiagatiko eta erditzeagatiko kasuak kontuan hartu gabe).



Iturria: Eustat. Ospitaleetako erikortasun-estatistika. INE. Ospitaleetako erikortasun-estatistika

Ospitaleratzeen zio nagusiak, Estatu osoan bezala, zirkulazio-gaixotasunak, digestio-gaixotasunak eta arnas gaixotasunak izan ziren, ospitaleratzeen % 38,2 eragin baitzituzten (% 37,4 Estatuan). Bestalde, haurdunaldi, erditze eta erdiberriaroko taldea zortzigarren postuan zegoen Euskal AEn, ospitaleratzeen % 6,8rekin. Espainian, ordea, seigarren postuan zegoen (% 8,5), aparatu muskuloeskeletikoari eta aparatu genitourinarioari eragiten zieten aurretik.

Aipaturiko hiru gaixotasun-taldeak emakumeen ospitaleratzeen % 33,4 eta gizonen ospitaleratzeen % 42,9 izan ziren; Estatuan, aldiz, % 31,8 eta % 43,3 izan ziren, hurrenez hurren.

Gainera, zirkulazio-gaixotasunen taldeak hartzen du batez besteko adinik handiena (73 urte); traumatismo eta lesioen kasuan, berriz, gizonak emakumeak baino gazteago ospitaleratzen dira (54 urterekin gizonak eta 67 urterekin emakumeak; 53 eta 65 urterekin Estatuan).

Ospitalearen asistentzia-helburuaren arabera, ospitaleratzeen % 94,8 akutuen ospitaleetan egin zen (234.674 ospitaleratze), % 4,1 egonaldi ertain eta luzeko ospitaleetan (10.092) eta % 1,1 psikiatrikoetan (2.736).

Ospitaleratzeak Euskal Aeko ospitaleetan, gaixotasun ugarienen arabera, laguntza-helburuari jarraiki. 2019

Diagnosticiko-multzo handiak	Guztira		Akutuak	Egonaldi ertaina-luzea	Psikiatrikoak
	Kopurua	%	%	%	%
Guztira	247.502	100	100	100	100
Zirkulazio-aparatua	32.102	13,0	12,8	18,6	2.7
Digestio-aparatua	31.940	12,9	13,5	2,3	-
Amas-aparatua	30.452	12,3	11,9	26,0	-
Tumoreak	23.266	9,4	9,4	11,8	0.1
Traumatismo eta lesioak	21.960	8,9	9,1	4,8	1.0
Aparatu muskuluesketikoa	20.921	8,5	8,8	2,9	0.0
Aparatu genitourinarioa	17.279	7,0	7,1	5,4	-
Haurdunaldiko, erditzeko eta erditze ondoko arazoak	16.893	6,8	7,2	-	-
Sintomak eta ohiz kanpoko aurkikuntza klinikoak	12.242	4,9	5,1	2,7	0.5
Nahasmendu mentalak eta portaerarenak	7.521	3,0	2,1	1,1	93.2

(*) Portzentajea, ospitaleratze guztien gainean

Iturria: Eustat. Ospitaleetako erikortasun-estatistika

Asistentzia-helburua kontuan izanik, egonaldi ertain eta luzeko ospitaleetan eta psikiatrikoetan, ospitalizazioen % 5,2rekin, eredu ezberdina gertatzen da akutuen ospitaleen aldean, bai artatzen diren patologiez bezainbatean bai ospitaleko egonaldiaren iraupenari doakionez.

Egonaldi ertain eta luzeko ospitaleetan, ospitaleratze gehienak arnas aparatuko (% 26) edo zirkulazio-aparatuko (% 18,6) gaixotasunengatik izan ziren, eta batez besteko egonaldia 19 egunekoa izan zen. Ospitale psikiatrikoen kasuan, eskizofrenia izan zen ospitaleratze zio nagusia.

Ohar metodologikoa

Estatistikako Institutu Nazionalarekin (INE) batera egin da eragiketa estatistikoa.

Estatuaren estatistikekin eta nazioartekoekin konparatzeko arrazoiengatik, ospitaleratze modalitatean bakarrik hartzen dira kontuan gertakari horiek zeinek duten egun bateko edo gehiagoko iraupenik; alegia, ez dira 0 eguneko gertakariak aintzat hartzen. Egonaldiaren iraupena kalkulatu da egun-kopurua bezala ospitaleratze-datatik altakora arte, kontuan izan gabe ospitaleratze edo altako orduak.

Euskal Aeko 100.000 biztanleko ospitaleratze-tasa kalkulatu da Eustaten biztanleriarekin 2019/07/01ean.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tf: 945 01 75 62